


ZEGAMAKO EMAKUME ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO II. PLANA
2021 - 2025



MURGIBEK EGINA



ZEGAMAKO
UDALA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

01. Lege eta teoría esparrua	3
02. Diagnostikoan jasotako beharrak eta proposamenak	11
03. Planaren ezaugarriak	14
04. Planaren ikuspuntua	15
05. Jarduera Plana	17
06. Planaren kudeaketa	28

01. Lege eta teoria esparrua

Azken urteotan emakumei eta gizonei aukera-berdintasunerako eskubidea aitortzen dieten lege nahiz arau juridiko ugari onartu dira nazioartean, Europan, estatuan, baita udalerrietan ere. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako eskubideak berariaz aintzatestea da horien helburua, eta honako Berdintasun Plan honen aterpe zabala dira, bai erakundeen bai legeriaren aldetik.

Jarraian, genero-politiken egitura teorikoan eta legalean nabarmendu diren mugari batzuk aipatuko ditugu:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituena (13/12/21ean eguneratua).
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEn emakume eta gizonen arteko berdintasunerakoa.
- EAEn emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko VII. plana.
- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Gipuzkoako Foru Aldundiren III Plana 2020 - 2023
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen benetako berdintasunerakoa.
- Europako Gutuna, emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituena (13/12/21ean eguneratua).

Legearen 27.3. artikuluan xedatzenenez, udalek zerbitzu sozialen prestazioetan, aukera berdintasunaren garapenean eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioan eskumenak jaso dezakete. Testuinguru honetan tokiko administrazioak protagonismo argia du, legalki aukera emanez genero berdintasunean herritarrek dituzten beharrak eta asmoak asetzeko ekintza eta zerbitzuak antolatzeko, beti ere beste Administrazio Publikoen eskumenen galtze edo oztoporik suposatu barik.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Lege honen baitan argi eta garbi zehazten dira zein diren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, administrazio maila bakoitzak dituen eginkizunak, Autonomia Estatutuko 10.39 artikuluan, Lurralde Historikoen Legeko 6 eta 7 c.2. artikuluetan, zein Estatutuan (9.2 artikulua) eta Erkidegoko arauetan (Europar Batasunaren Ituneko 3.02 artikulua) ezarritakoak dakartzaten eskumenetatik abiatuta; izan ere, aipatutako lege eta arauak betebeharrak bi ezartzen dizkiete herri aginteei: bat, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna eta errealitate izateko baldintzak bultzatu eta oztupoak eraistea, eta, bestea, berdintasuna sustatzea herri-aginteen politika eta ekintza guztietan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak honako zeregin hauek ezarri dizkio herri-administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia txertatzeko.
- Ekintza positiboko neurriak betetzea.
- Programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren baitan eta Foru Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren baitan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun egoerak ezagutu ahal izateko.
- Tokian tokiko eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako irisgarritasuna bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei ere.

- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako irisgarritasuna izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta parte-hartze eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek tokiko eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Tokiko eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik desagerrarazteko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Plana.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak frogatzen duenez, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, funtsezko aurrerapausoa da berdintasun-politiken esparruan. Izan ere, arautu egiten du EAEko herri-administrazioaren jarduna, eta, hala dagokionean, erakunde pribatuena, berdintasunaren printzipio juridiko unibertsalean, bai tratu bera lortzeari dagokionez, baita aukera-berdintasunari dagokionez ere.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Plana egiteari eta egituratzeari dagokienez, Legean oinarritzko lau eginkizun zehaztu dira:

1. Plana gauzatzean botere publikoen jardura arautu behar duten oinarritzko printzipioak ezartzea (Legearen Atariko Titulua).
2. EAEko botereen eta herri-administrazioen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurri sorta arautzea (I. eta II. tituluak).
3. Eginkizun eratzailea, hots, esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurriak eratzea (III. titulua).
4. Oinarritzko edukiak definitzea.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoa.

2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaratutako Legea, batetik, honako premisa honetan oinarritzen da: "emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza-eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da". Bestalde, Legearen oinarritzko beste premisa baten arabera, legearen aurrean berdintasun formal erabatekoa onartzea funtsezkoa da, eta hobetu egin behar da araugintzaren bidez. Araugintza hori dela medio, "oraindik ere geratzen diren sexuagatiko diskriminazio agerpen guztiei aurre egin behar zaie, diskriminazioa zuzena nahiz zeharkakoa izan, gizonezkoen eta emakumezkoen benetako berdintasuna bultzatzeko, eta hori lortzea eragozten duten oztopoak eta gizarte estereotipoak mugiaraziz".

Besteak beste, Legea honako funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: "ekintza positiboa", "ordezkaritza orekatua" eta "zeharkakotasuna".

21.1 artikulua adierazten duenez, "bere eskumenak betetzean toki-erakundeek berdintasunerako eskubidea gain hartuko dute, eta gainerako herri-administrazioekin lankidetzan arituko dira horretarako". Horrenbestez, 3/2007 Legeak tokian tokiko administrazioei dagozkien eskumenetara garamatza, hots, apirilaren 2ko 7/1985 Legean (toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) orokorrean adierazten direnetara, eta EAEko udalerri dagokienez, zehazki 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoan adierazten direnetara.

Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Gipuzkoako Foru Aldundiren III. Plana 2020-2023

Gobernu Ona

Gobernu onari lotutako esku-hartze ildoari dagokionez, berdintasun politikak "zeharkakoak" izatea bultzatuko du. Esparru honetan, besteak beste, foru erakundeko langileen berdintasunaren arloko prestakuntza zabalduko da. Berdinbidean programa berrituko dute, 10.000 biztanle dituzten Gipuzkoako udalerrri eta mankomunitateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak garatzeko.

Emakumeen ahalduntzea

Emakumeen ahalduntze "soziala eta kolektiboa" ere planaren "funtsezko" ildo da. Giza eskubideak eta kultura politiko demokratikoa lortzen lagundu duten Gipuzkoako emakumeen bizi-ibilbideak eta ibilbide profesionalak aztertuko dira. Gainera, gizartea eta politikaren eremuetan emakumearen partaidetza sustatzeko neurriak aktibatuko dira.

Gizartea eta ekonomia eraldatzea

Gipuzkoako gizartea eta ekonomia eraldatzeko bilaketan, beharrezkoa da genero-desberdintasunen oinarrian dauden balioak "zalantzan jartzea", bai eta berdintasunaren aitorpenean aurrera egitea ere.

indarkeria matxistarik gabeko gizartea

Aldundiak historikoki indarkeria matxistaren aurka egindako "lan eskerga" jarraitu behar da. Horretarako, arlo horretako ikerketa sustatuko da, sentsibilizazio-, prebentzio- eta prestakuntza-ekintzei eutsiko zaie, eta etengabeko hobekuntza eta erakundeen arteko koordinazioa bultzatuko dira.

Europako Gutuna emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak eta bere bazkideek sustatu dute, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 5. Ekintza Egitasmo Bateratuaren esparruan. "Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuentzako da. Izan ere, sinatzera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu".

EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte) proiektuko bazkideetako bat da, eta gero eta gehiago dira gutuna sinatu duten udalak. Gutuna izenpetzen duten udalek konpromisoa hartzen dute bi urtean berdintasunerako plana egin eta gauzatzeko. Planak era parte-hartzailean eginga egon behar du, ebaluazio-irizpideen arabera. Gainera, plana abian jartzeko behar adina baliabide izan behar dute udalak.

Europako Gutunak aitortzen duenez, tokian tokiko eta eskualdeko agintariak "esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraunkortasunari eta errepikapenari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko".

Arau horien oinarria ondoren zehaztuko diren Berdintasunerako Printzipioetan dago:

(4/2005 Euskal Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa).

1. TRATU-BERDINTASUNA. Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

Legearen ondorioak:

- a) Zuzeneko bereizkeria dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla eta; haurdun egonda edo ama izanda, esaterako; beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.
- b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten edonolako jardueretarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela eta, administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Euskal herri-agintek bermatu behar dute ezen bereizkeria-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla eta, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarrizko eskubideak. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

2. AUKERA BERDINTASUNA. Euskal herri-agintek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoretarako, aukera-berdintasunaz ari garela, esan beharra dago agintea eta baliabide eta gizarte-onura eta onura ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal herri-agintek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita (Irisgarritasuna Sustatzen du lege horrek).

3. ANIZTASUNA ETA EZBERDINTASUNA ERRESPETATZEA. Herri-agintek beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte sexuen berdintasunerako prozesuak errespetatu daitezzen bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrezko dagozkenez dauden ezberdintasunak eta aniztasuna, baita emakumeen artean eta gizonen artean dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.

4. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA. Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan

ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondoreetarako, honako hau da “Genero-ikuspegia txertatzea”: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea.

5. EKINTZA POSITIBOA. Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-aginteek denboran ondo mugatutako berariazko neurriak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

6. SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA. Euskal aginte publikoek sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta horrek, gainera, balorazio eta aitortpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eragiten du.

7. ORDEZKARITZA OREKATUA. Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan. Lege honen ondorioz, kide anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek gutxienez % 40ko ordezkariak dutenean.

Diagnostikoan jasotako beharrak eta proposamenak

Egindako landa lanean hurrengo beharrak jaso dira berdintasunaren esparruan:

1. Orokorrean, aurreko Plana barne funtzionamenduan gutxi ezarri dela uste da. Ekintza gehienak kultur eta gazteria arlotik antolatutako ekintzetan sustatzen direla uste da, martxoak 8 eta azaroak 25 programari lotutako ekimenetan batez ere, antzerkiak, ipuin kontalariak eta tailerrak batez ere.
2. Gainera, Plana ez dela gehiegi ezagutzen eta egin den lanketa nahiko azalekoa izan dela antzeman da.
3. Berdintasun teknikari baten falta.
4. Berdintasunaren gaia eta lana lehen planora ekartzeko liderrik edo talde eragilerik ez egotea.
5. Arkitekturatik ere oso lan garrantzitsua egin behar da puntu ilunen inguruan.
6. Elkarlanaren beharra.
7. Oso garrantzitsua da koordinatzea kultura teknikaria, gizarte langilea eta liburutegiko eta gazte lekuko langilea.
8. Udal langileen eta politikarien formakuntza ezinbestekoa da.
9. Berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa asko landu behar da. Berdintasunaren inguruko kontzeptuak argitu. Udaletik hasi behar da.
10. Datuak sexuz bereiztu eta aztertu behar dira.
11. Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista gehiago landu behar da. *Udaletxetik heltzen diren eskutitz guztiak etxean erroldatutako mutilaren izenean heltzen dira. Askoz aproposagoa izango litzateke etxean bizi diren guztiengana zuzendutako eskutitzak bidaltzea*
12. Kontratu eta diru laguntzetan berdintasun klausulak gehiago landu behako litzateke eta jarraipena egin.

13. Emakumeek gizonekin alderatuta langabezia handiagoa dute, okupazioa maila baxuagoa eta kontratu mugagabe gutxiago dituzte. Gainera jarduera gabeko emakume gehiago daude eta errenta arraila nabarmena da.
14. Elkarte gehienek ez dute berdintasunaren aldeko ekintzarik antolatzen.
15. Emakume migratuak egunerokotasunetik urrun daude udal mugimenduari dagokionez.
16. Eskolak ez du berdintasuna sakonki landu. II Hezkidetza Plana birrantolatzen ari dira. Udaletxearekin harremana areagotzeko premia. Herri mailan dagoen euskara batzordean parte hartzen da eskolatik, berdintasun batzordean ez aldiz, eta prest egongo lirateke.
17. Zegama-Aizkorriko maratoi egunean, herriaren proportzio handi bat bountariotza lanetan aritzen da lasterketa aurrera ateratzeko. Helmugan daudenei (150 pertsona inguru), urtero egingo dituzten lanen paper bat banatzen diete, hau da guztion izenak agertzen diren zerrenda bat eta bakoitzari dagokion lana, eta bertan emakume lanak eta gizon lanak desberdintzen dira. Emakume lanak: edaria zerbitzea, bokadiloak egitea, garbiketa lanak... Gizon lanak: azpiegituren muntaia, bidegurutzeetan trafikoaren kontrola...
18. Ehizak indar handia du herrian, gizonezkoen eremua da: mutikoak 10 urterekin hasten dira aitekin joaten.
19. Zaintzetan asko dago egiteko. Jarrera eta ekintzak oso estereotipatuak dira: gizonak tabernara joan eta tiroak bota, eta emakumeak paseatu eta zaindu
20. Zaintzak hobetu behar dira, profesionalizatu, garrantzia eman eta bisibilizatu. Partekatu egin behar dira familian eta zaintzaile profesionalen prekarietatea desagertarazi.
21. Zaintza balioan jartzeko beharra.
22. Enpresaren papera oso inportantea da, erraztasunak eman behar ditu, malgutasuna eskaini, telelana. Ezinbestekoa da enpresekin lana egitea.
23. Indarkeria matxistaren inguruan. Herri txikietan gertatu daiteke indarkeria psikologiko larria jasotzen ari diren emakumeak egotea, eta inork ez jakitea. Onartzeko beldurra dago. Sentsibilizazioa eta bisibilizazioa behar da. Nerabeek ere sentsibilizazio eta formakuntza behar dute. tailerrak egiteko beharra.
24. Heziketa sexuala oraindik ere falta da, non lan potentea dagoen egiteko. Ezin da pentsatu emakumea gizonezkoa baino gutxiago dala harreman batean. Denen inplikazioa behar da: familia, eskola... Sexualitatea lantzeko beharra.

25. Indarkeria izugarrizko lakra da. Ezin dira taldeko bortxaketak onartu, ezta legeak ez ikustea eta zigorrik ez jartzea.
26. Zergatik 60 urtetik gorako emakumeek ez dituzte genero indarkeriaren salaketarik jartzen? Indarkeria tabu izaten jarraitzen du, batez ere adin batetik aurrera; ez dira datuak ondo ezagutzen, baina egon badaude, humiliazio publikoak, etabar. Hitz egiten al da gai hauetaz? Izkutuan ez geratzeko ERRAZTASUNAK eman behar dira, jendea libre sentitu behar da kontatu ahal izateko.

Berdintasunerako hurrengo PROPOSASAMENAK identifikatu dira:

1. Berdintasunaren aldeko Udal konpromisoa landu.
2. Berdintasun politiketan formakuntza antolatu udal langile, politikari eta elkarreentzako.
3. Udaleko programazioan genero ikuspegia txertatzea.
4. Kontratu eta diru-laguntzetan berdintasun klausulak txertatu eta jarraipena egin.
5. Datuak sexuz bereiztu eta genero ikuspegitik aztertu.
6. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin.
7. Berdintasun Batzordea sendotu eta jarraitzea talde eragile moduan.
8. Egun klabeetan udaletik programa bereziak antolatzen jarraitu eta egun berriak agenda sartu (Ekainak 28 LGTBQ aldarrikapen eguna)
9. Sentsibilizazioa lantzea gure gizartean oraindik ere dirauten estereotipo eta iritzi sexistak gainditzeko (eskolan, gazteekin eta gizartean orohar)
10. Emakumeen lan baldintzak hobetzea.
11. Emakumeen kontrako indarkeriaren arreta eta prebentzioa hobetzea. Adibidez: Autodefentsa tailerrak antolatzea.
12. Gizonak inplikatzeko etxeko eta zaintza lanetan
13. Emakume gazte (18-25 urte) potenteak datoz, inizatiba dutenak eta aldi berean emakume heldu potente asko dago ere. BIZITZA TESTIGANTZAK partekatzeko beharra. Bai helduen baita gazteen esperientzi eta inizatibak balorean jartzeko beharra. BELAUNALDIEN ARTEKO programen behar eta garrantzia.
14. Emakumeen beharrak aztertu ikuspegi interseksionaletik: Adin handikoak, gazteak, migratuak...

03. Planaren ezaugarriak

Plan honen helburu orokorra, batetik, udal kudeaketan genero ikuspegiaren txertaketa lortzea da, eta bestetik, Zegamako emakumeen berdintasuna bermatzea eskubide eta aukeretan.

Lehenengo helburua lortzeko, “Gobernu ona” ardatza ezartzen da, gobernu on batetarako, genero mainstreaming-a gauzatzeko neurri konkretuekin.

Bestalde bigarren helburua lortzeko, hurrengo hiru ardatzak ezarriko dira: “Emakumeen ahalduntzea”, “Ekonomiak eta antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko” eta “Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak”.

II Planak honako ezaugarriak ditu:

5 urteko iraunaldia du, hau da, 2021-2025 aldirako osatua dago.

Parte-hartzailea izan da, udal langile eta eragileen inplikazioarekin kontatu da.

Udaleko berdintasunaren diagnostikoa kontutan hartu du

Kultura Teknikaria izango da Planaren koordinaketa eta aurrera eramatearen arduraduna.

Plan ireki eta malgua da eta urteko plan operatiboak definitu behar dira.

Plan ebaluagarria da eta helburuen betetzen maila etengabe ebaluatzeko adierazleak hartzen ditu barne.


Erantzukizuna duten Arloek eta Erakundeek aurreikusitako denboran eta erabilgarri dauden baliabideekin garatzeko helburuak eta ekintzak jasotzen ditu.

Udalerriari eragiten dion instrumentua da eta politikarien eta teknikarien konpromisoa dakar.

04.

Planaren ikuspuntua

Zegama Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako II Planak EAEko Emakume eta gizonezkoen Berdintasunerako VII. Planaren printzipio eta lan-ildoak jarraitzen ditu.



Gobernu ona

Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren txertatzea legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera generoaren zeharkakotasuna gauzatu behar dute Euskal Admnistrazioek.

4/2005 Legeak, printzipio orokorretan, aldarrikatzen du botere publikoek egiten dituzten politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia barne hartu behar dutela, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko (3. artikulua). Lege honen ondorioz, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea”.

Emakumeen ahalduntzea

Emakumeen ahalduntzeak emakumeen bizimoduari eragiten dioten baliabideen eta erabakien gaineko autoritatea eta boterea areagotzen ditu. Emakumeak banaka nahiz taldean jabetzeko prozesuari buruz ari gara; izan ere, honen bitartez erabakiak hartzeko prozesuetako parte-hartzea areagotuko da, agintera iristen lagunduko du, eta eragina izateko ahalmenean ondorioa izango du. Etorkizuneko gizartea eta ekonomia garapena ez litzateke guztiz garatuko emakumeen parte hartze ekonomiko eta politikorik gabe maila guztietan.

Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea

Beharrezkoa da eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko, eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkorrago eta berdinzaleago bat lortzen laguntzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

Arreta jartzen da, batetik, prebentzioan, eta, bestetik, bizirik jarraitzen duten biktimei arreta integrala ematean (erabat oneratzeko diren arte).

PRINTZIPIO GIDARIAK

Feminismoaren paradigma: pentsamendu feministako lerro eta dimentsio guztiak barne, emakumeen eta gizonen desberdinkeriak eta diskriminazioak nola eta zergatik sortzen diren azaltzea eta ulertzea ahalbidetzen duen teoria eta praktika politiko modura. Agenda horrek proposatutako aldaketak urte askoz feminismoak egindako lanaren emaitza dira.

Genero ikuspegia: Analisi- eta lan-metodologia modura, ikuspegi horrek agerian jartzen ditu eta, ondorioz, ekiteko moduko bihurtzen ditu generoen arteko desberdinkeriak. Genero-ikuspegia hartzeak esan nahi du Plan honetan emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi dela.

Interseksionalitatea: Genero-ikuspegiaren ikuskera konplexu eta integralago batetik, Plan honek generoa eta beste desberdinkeria batzuen arteko interseksionalitatea onartzen du bere estrategiaren diseinuan. Nahiz eta patriarkatuan emakume guztiak genero-identitate

bera izan, guztiek ez dituzte ezaugarri berberak. Horregatik, beren aniztasunean, emakumeak ere desberdinak dira beren artean, generoa eta beste desberdinkeria- eta diskriminazio-iturri batzuekin (hizkuntza, klasea, etnia, arraza, sexu-aukera, adina, dibertsitate funtzionala eta abar) elkarrekikotasunean erlazionatzeko duten moduaren arabera.

Interseksionalitateak berekin dakar ekintza konplexuagoa eta integratzaileagoa proposatzea, zeinak agerian jarriko dituen emakumeen aurkako desberdinkeriak areagotzen diren egoera horiek. Ekintza-mota horrek oraindik ez du ibilbide handirik politikan eta instituzioetan, eta ondorioz, zailagoa da ezartzea.

Emakumeak ahalduntzea: emakumeen ahalduntzea Planaren ardatzetako bat izateaz gain, lan-agenda osoa gidatzen duen printzipio bat ere bada. Emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua da; hainbat mailatan egon behar da (pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa) eta hainbat alorretatik lagundu behar zaio (politiko-instituzionala, eta antolaketaren, gizartearen eta herritarren arlokoa).

Gizarte garapen jasangarria: Giza garapen osoak, jasangarria izan dadin eta egiturako aldaketak bultzatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar ditu bere ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alderdietan. Horrek esan nahi du, bada, giza beharrak ulertzeko modua aldatu egiten dela, emakumeen premiak gehitzen zaizkielako, eta premia horiek lehentasunezkoztat jotzen direlako.

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan 5. Helburuageneroen arteko berdintasuna eta emakume eta nesken guztien ahalduntzea da.

COVID – 19a

COVID-19aren ondorioz, azken aldiko osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi garrantzitsuena gertatu da, eta agenda eta lehentasun politiko eta sozialak aldatu dira mundu osoan.

Pandemia desberdin ari da eragiten emakumeengan eta gizonengan eta datuek erakusten digute emakumeek eta neskek arrisku handiagoa dutela krisi honen ondorio negatiboen aurrean. Horregatik, premiazkoa da genero-ikuspegia txertatzen duten neurriak hartzea II Plan honen indarraldian, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideen erabileran eta berdintasunerako bidean atzera egitea saihesteko.

05. Jarduera Plana

Planaren Arloak kontuan hartuta, 2021-2025 helburuak eta ekintzak landuko dira atal honetan. Udalak genero berdintasunaren aldeko II Plan honek lehen urratsak ezarriko ditu esparru honetan eta udalaren eskumen eta baliabideetara egokituta dago.

Helburuek aldarazi nahi den gizartearen errealitatea definitzen dute; lehenetsuna zer egitegori eman behar zaion finkatzen dute eta, proposatutako adierazleen eta ondorengo ebaluazioen bidez, lortutako emaitzak zehazten dituzte. II Plan honetan arlo bakoitzerako helburuak zehaztuko dira, eta horietako bakoitzean gauzatu beharreko ekintzak hartuko dira kontuan, EAEko VII Berdintasun Planean jasotzen diren ekintza-multzoetan taldekatuta eta ekintza mota kontutan izanda:

ARLOAK	HELBURUAK	EKINTZAK
GOBERNU ONA	4	17
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	1	2
EKONOMIAK ETA ANTOLAMENDUA ERALDATZEA	2	5
ESKUBIDEAK BERMATZEKO		
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK	2	6

GUZTIRA: 9 helburu eta 30 ekintza

HELBURUA		G1. Emakume eta gizonen berdintasunaren konpromisoa, plangintza eta kudeaketa hobetu.					
EKINTZA	1. Udaleko aurrekontuetan berdintasunari partida ekonomiko bat egokitzea.	6.000 €					
	2. Udalean langile arduradun bat izendatzea berdintasun Plana aurrera eramateko eta berdintasunean formakuntza izatea	0 €					
	3. Berdintasun Batzordea indartu eta jarriapena eman.	0 €					
	4. Udal langile eta politikarie zuzendutako berdintasunaren inguruko prestakuntza antolatu eta eskaintzea.	600 €					
	5. Planaren ebaluaketa eta memoria egin urtero.	0 €					
	6. Berdintasunaren aldeko urteko ekintzen plangintza prestatzea eta udal mailan komunikatzea.	0 €					
	7. Periodikoki politikoekin bildu Planaren “deskargua” egiteko eta konpromisoak lotzeko.	0 €					
NORK	Alkatetza						
ERAKUSLEAK	⇒ G1 helburuaren betetze maila	zb	21	22	23	24	25
	⇒ Udal aurrekontua berdintasunean urtero	1					
	⇒ Berdintasun batzordearen partaideak sexuz	2					
	⇒ Politikoekin egindako bilera kopurua eta hartutako konpromisoak. Berdintasun Batzordearen bilera kopurua urtero	3					
	⇒ Berdintasunaren inguruan antolatutako formakuntza kopura (orduak) eta partaideak sexuz eta karguz urtero	4					
	⇒ Berdintasunean antolatu diren ekimenen komunikazioa (ebidentzia)	5					
	⇒ Formakuntzaren balorazioa sexuz (1-10 eskala)	6					
		7					



Diagnostikoa, berdintasuna sustatzeko tade eragilea bat eta berdintasun teknikari baten falta detektatu da. Baita ere, berdintasun politiken ebaluaketa eta plangintza jarraitua egitearen beharra eta udal mailan politikarien eta langileen berdintasunean formakuntza maila hobetzeko beharra. Plana gehiago komunikatu behar dala jaso da ere.

Azkenik berdintasun politikak aurrera eramateko aurrekontu espazifiko bat dedikatu behar da.

HELBURUA		G2. Genero ikuspegia azterlan eta estatistiketan txertatu.					
EKINTZA	8. Udaleko imprimakietan eta datu baseetan sexu aldagaia sartzea.	0 €					
	9. Kultur, kirol, jai, gazterian eta beste edozein jarduera motan partaideak sexuaren arabera jaso.	0 €					
	10. Jasotako datuak ustiari, emakume eta gizonen bizi duten egoera, baldintza, jomuga eta premiak identifikatzeko.	0 €					
NORK	Alkatetza, arlo guztiak						
ERAKUSLEAK		zb	21	22	23	24	25
		8					
	⇒ G 2 helburuaren betetze maila	9					
	⇒ Udal mailan jasota dauden genero erakusleen zerrenda	10					



Diagnostikoan, udal ekintzetako datuak ez direla gehienetan sexuz bereizten antzeman da. Hori dala eta, sistematizazio lan bat egin beharko da hurrengo urteetan datu base, imprimaki eta memoriaren sexu aldagaia txertatzeko. Arlo arlo informazioa joango da jasotzen, urtero genero indikadoreen zerrenda bat eskuratzeko.

HELBURUA		G3. Hizkuntza, irudi eta eduki ez sexistak bultzatze					
EKINTZA	11. Hizkuntza eta irudi ez sexistarako gidaliburuak banatzea.						0 €
	12. Urtero udaleko eta elkarrekin egindako dokumentu lagin bat aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.						0 €
	13. Berdintasunaren inguruko edukiak zabaltzea (web orrian, aldizkari eta sare sozialetan).						0 €
NORK	Berdintasun Batzordea						
ERAKUSLEAK		zb	21	22	23	24	25
		11					
		12					
		13					
⇒ G 3 helburuaren betetze maila ⇒ Urtero aztertutako dokumentuen laginean hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista maila							



Diagnostikoan, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egiteko sistematizazioa landu behar dala ikusi da. Horretarako irizpdeak zabaldu eta urtero dokumentu lagin bat aztertuko da hobekuntzak proposatzuz. Esaterako hurrengo behar konkretu hau landu daiteke: *Udaletxetik heltzen diren eskutitz guztiak etxean erroldatutako mutilaren izenean heltzen dira. Askoz aproposagoa izango litzateke etxean bizi diren guztiengana zuzendutako eskutitzak bidaltzea.*

Bestalde, berdintasunaren inguruko mesuak gehiago ikustarazi behar direla identifikatu da, horretarako web orria, sare sozialak eta aldizkariak erabiliko dira.

HELBURUA		G4. Genero ikuspegia diru-laguntza, kontratu, aurrekontu eta programetan txertatu.					
EKINTZA	14. Berdintasun klausulak sartzea diru laguntza eta kontratuetan.						0 €
	15. Aurrekontua genero ikuspegitik aztertu.						(diru-laguntza)
	16. Berdintasun ikuspegia txertatzea herritarrei zuzendutako programa guztietan.						0 €
	17. Zegama – Aizkorri maratoia, San Bartolome Jaien eta San Martin Feriaren Berdintasun diagnostikoa egitea.						--
NORK	Alkatetza eta udal arlo ezberdinak						
ERAKUSLEAK		zb	21	22	23	24	25
	⇒ G 4 helburuaren betetze maila	14					
	⇒ Berdintasun klausulen txertaketa maila diru-laguntza eta kontratuetan	15					
	⇒ Genero ikuspegiaren txertaketa maila herritarrei zuzendutako programetan	16					
	⇒ Berdintasun diagnostikoak egin ondoren martxan ipini diren ekintzak	17					



Diagnostikoan, berdintasun klausulak diru-laguntza eta kontratutan txertatzen jarraitu behar dala ikusi da.

Genero ikuspegiaren gehiago sakondu behar da. Horretarako urtez urte programa ezberdinak aztertzen joatea proposatzen da, esaterako Kultur programazioa, gazteei zuzendutako ekimenak, jaiak, kirol ekintzak etabar hobekuntzak martxan ipintzeko. Adibidez kontutan izan jasotako landu beharko litzatekeen behar bat: Zegama-Aizkorriko maratoi egunean, bountariotza lanetan emakume lanak eta gizon lanak desberdintzen dira modu tradizionalan. Emakume lanak: edaria zerbitzea, bokadiloak egitea, garbiketa lanak... Gizon lanak: azpiegituren muntaia, bidegurutzeetan trafikoaren kontrola... Horregatik Zegama – Aizkorri maratoioaren azterketa genero ikuspegitik egitea proposatzen da.

Aurrerantzean, aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzen joan behar da ere.

A. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA (1)

HELBURUA	A1. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta taldekoa hobetu.						
EKINTZA	18. Emakumeen jabeakuntza sustatzeko ekintzak antolatu (Tailer mota: gimnasia emozionala; irakurketa femnistak; publikoan nola hitz egin; soru pelbikoaren indartzea, interkulturalitatea bultzatzeko ekintzak: sukaldaritza tailerra, joste tailerrak... belaunaldien arteko ekimenak)						1.100 €
	19. Emakumeen beharrak aztertu ikuspegi intersektzionaletik: adin handikoak, gazteak, migratuak...						0 €
NORK	Kultura, Gizarte Zerbitzuak, Gazteria; Berdintasun Batzordea						
ERAKUSLEAK		zb	21	22	23	24	25
	⇒ A1helburuaren betetze maila	18					
	⇒ Emakumeen ahalduntzerako antolatutako ekintza kopurua urtero eta partaideak adinez eta jatorriz	19					
⇒ Emakumeen beharrak indentifikatuta daude ikuspegi intersektzionaletik							
⇒ Formakuntzaren balorazioa (1-10 eskala)							



Diagnostikoan, emakumeen ahalduntzea sustatu behar dala jaso da. BIZITZA TESTIGANTZAK partekatzeko beharra nabaritu da. Bai helduen baita gazteen esperientzi eta inizatibak balorean jartzeko beharra. BELAUNALDIEN ARTEKO programen behar eta garrantzia. Bestalde, Emakume migratuak egunerokotasunetik urrun daudela ere aipatu da udal mugimenduari dagokionez.

E. EKONOMIAK ETA ANTOLAMENDUA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO (1)

HELBURUA	E1. Sentsibilizazioa landu gure gizartean oraindik dirauten estereotipoek eta iritzi sexistak gainditzeko.						
EKINTZA	20. Urtean zehar berdintasunaren aldeko sentsibilizazio ekintzak antolatzea egun klabeetan eta urtean zehar.						1.200 €
	21. Hezkidetza lantzeko programa aurrera eraman eskolarekin bat.						1.200€
NORK	Berdintasun Batzordea						
ERAKUSLEAK		zb	20	21	22	23	24
		20					
	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ E1 helburuaren betetze maila. ⇒ Berdintasunaren sentsibilizaziorako antolatutako ekintza kopura eta parte-hartzea sexuz. ⇒ Hezkidetza sustatzeko antolatutako ekintza kopura eta parte-hartzea sexuz. ⇒ Formakuntzaren balorazioa sexuz (1-10 eskala) 	21					



Diagnostikoan, kontzientzia pizten jarraitu behar dala eta sentsibilizazioa lantzen identifikatu da, gure gizartean oraindik ere dirauten estereotipo eta iritzi sexistak gainditzeko (eskolan, gazteekin eta gizartean orohar).

Eskolak ez duela berdintasuna sakonki landu jaso da ere. Baita eskolak udaletxearekin harremana areagotzeko duen premia.

E. EKONOMIAK ETA ANTOLAMENDUA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO (2)

HELBURUA		E2. Erantzunkidetasuna eta zaintza gaizartearen erdigunean kokatu.					
EKINTZA7	22. Erantzunkidetasunaren inguruko sentsibilizazio kanpainak antolatu familia eta enpresei zuzenduta	300 €					
	23. Gizonak zaintza eta etxeko arduretan inplikatzeako ekintzak antolatzea.	300€					
	24. Zegamako zaintzaren inguruko mapa egitea.	Diru-laguntza					
NORK	Berdintasun Batzordea						
ERAKUSLEAK		zb	21	22	23	24	21
		22					
		23					
		24					
<ul style="list-style-type: none"> ⇒ E2 helburuaren betetze maila ⇒ Erantzunkidetasun kanpainen barne antolatutako ekintza kopurua eta parte-hartzea sexuz eta adinez ⇒ Gizonak zaintza eta etxeko arduretan inplikatzeako ekintzak kopurua eta parte-hartzea sexuz ⇒ Zaintzaren mapa egin da. ⇒ Formakuntzaren balorazioa sexuz (1-10 eskala) 							



Diagnostikoan, Zaintza balioan jartzeko beharra jaso da eta gizonak gehiago inplikatzea. Zaintzetan asko dago egiteko. Jarrera eta ekintzak oso estereotipatuak dira: gizonak tabernara joan eta tiroak bota, eta emakumeak paseatu eta zaindu

Zaintzak hobetu behar dira, profesionalizatu, garrantzia eman eta bisibilizatu. Partekatu egin behar dira familian eta zaintzaile profesionalen prekarietatea desagertarazi.

Enpresaren papera oso inportantea da, erraztasunak eman behar ditu, malgutasuna eskaini, telelana. Ezinbestekoa da enpresekin lana egitea.

I. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK(1)

HELBURUA		I1. Genero indarkeriaren prebentzioa landu.					
EKINTZA	25. Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunaren salahaketa aurrera eraman eta programa lantzea adin ezberdinetan geratzen den egoera dela adieraziz.						200€
	26. Heziketa sexuala sustatzeko ekintzak eta tailerrak antolatu adin ezberdinetako emakume eta gizonei zuzenduta						
	27 Jaietako programazioan emakumeen kontrako indarkeriaren aldeko ekintzak antolatzen jarraitzea.						200€
	28. Puntu ilunak identifikatzea herriko emakumeen partehartzearekin eta hobekuntzak jasotzea.						0€
NORK	Berdintasun Batzordea, Jai Batzordea						
ERAKUSLEAK		zb	21	22	23	24	25
	⇒ I1 helburuaren betetze maila.	25					
	⇒ Heziketa sexuala sustatzeko antolatutako ekintza kopura eta parte-hartzea sexuz	26					
	⇒ Emakumeenganako indarkeriaren prebentziorako antolatutako ekintza kopura eta parte-hartzea sexuz	27					
	⇒ Identifikatutako puntu ilunak eta hobetzeko proposanak	28					



Diagnostikoan, herri txikietan gertatu daiteke indarkeria psikologiko larria jasotzen ari diren emakumeak egotea, eta inork ez jakitea. Onartzeko beldurra dago. Sentsibilizazioa eta bisibilizazioa behar da. Nerabeek ere sentsibilizazio eta formakuntza behar dute. tailerrak egiteko beharra. Heziketa sexuala oraindik ere falta da, non lan potentea dagoen egiteko. Ezin da pentsatu emakumea gizonezkoa baino gutxiago dala harreman batean. Denen inplikazioa behar da: familia, eskola... Sexualitatea lantzeko beharra. 60 urtetik gorako emakumeek ez pairatzen dituzte tratu txarrak. Izkutuan ez geratzeko ERRAZTASUNAK eman behar dira, jendea libre sentitu behar da kontatu ahal izateko.

I. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK (2)

HELBURUA		I2. Emakume biktimen babes eta arreta osoa bermatu.					
	29. Emakumeen aurkako indarkeria arreta hobetzeko protokoloa sustatzen jarraitu.						0€
	30.. Emakumeenganako indarkeriaren inguruko eta arreta zerbitzuen informazioa zabaldu.						300€
NORK		Berdintasun Batzordea, Gizarte Zerbitzuak					
ERAKUSLEAK		zb	21	22	23	24	25
⇒ 11 helburuaren betetze maila.		29					
		30					



Diagnostikoan, emakume erasotuen arreta hobetzen eta indarkeria matxistaren inguruan informazioa zabaltzen jarraitu behar dala intersektionalitea kontutan izanik.

06.

Planaren kudeaketa

Koordinazioa eta programazioa

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikulua jasotzen duenaren arabera tokiko administrazioek, euren eskumenen esparruan, egiturak egokitu behar dituzte unitate administratibo bat egon dadin, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak bultzatzeaz, programatzeaz, ebaluatzeaz eta horiei buruz aholkatzeaz arduratzeko.

Sustapen eta koordinazio egitura

Plan honen jardura-programatik eratorritako helburuak eta ekintzak erdiesteko, beharrezkoa da berorren sustapeneko, jarraipeneko eta ebaluazioko egiturak izatea. Sustapenerako zinegotzi bat, udal langile bat, kultura teknikaria, eta gaian aditua den pertsona edota erakunde batekin kontaktuko da. IVAP, EUDEL eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eginiko Berdintasunerako Teknikariak kontratatzeako ereduaren arabera, pertsona horrek emakume eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza ikastaroa izango du gutxienez 150 ordukoa eta organo ofizial batek ziurtatuta.

Udal langilean berdintasunean formakuntza jasoko du ere.

Sustapen egitura honen zereginak hurrengo hauek izango dira Planaren iraunaldian zehar:

- Urteko lehentasunak zehaztea berdintasunari dagokionez.
- Plangintza bat sortzea dauden baliabideetan oinarritutakoa (ekonomikoak, pertsonalak etab.)
- Ekintzak aurrera eraman daitezten egituraren partaideen ardurak banatzea.
- Egiten diren ekintzen jarraipena eta balorazioa egitea.
- Periodikoki politikarie Planaren “deskargua” egitea.

Lanaren jarraipena eta parte-hartzea sustatzeko Berdintasun Batzorde mistoak jarraituko du udaleko eta herriko eragileekin (eskola, guraso elkarte, Gazte Lekua eta Gazte Herexa elkarte eta Jubilatuen elkarte egotea ezinbestekotzat hartu da). Lan honen koordinazioa eta jarraipena posible izan dadin, udaleko berdintasunean arduratuko den langilearekin batzartuko dira aldizka.

Erakunde arteko koordinazio-egiturei dagokionez, Zegamako Udalak BERDINSAREA, EMAKUNDEk eta Gipuzkoako Foru Aldunditik bultzatutako ekintzetan parte-hartuko du eta beragatuko ditu erakunde hauek bultzatutako berdintasun politikak.

II. Plan honen programaziorako, Urteko Programa Operatiboak egingo dira aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan. Urteko Plan Operatibo horiek berdintasun sustapen egiturak adostuko ditu. Helburuak, ekintzak, egin beharreko jarduerak, inplikaturako arloak, egutegia, ekintzen kostua eta ebaluaziorako adierazleak kontuan hartuko dituzten lan-planak egingo dira. Berdintasuna zehar-lerro bat da eta berdintasun taldeak egingo ditu urteko planak.

Planaren ebaluaketa

I Berdintasun Planen ebaluazioa jarraitua egingo da. Ebaluaketa maila ezberdinetan emango da:

- Betetze mailaren ebaluaketa: plan operatiboa jarraituz ekintzen jarraipen kuantitatiboa egingo da, hurrengo aldagaiak kontutan izanik:
 - egina
 - partzialki egina
 - ez egina
 - egina baina ez zegoen planifikatuta
 - arrazoiak
- Prozesuaren ebaluazioa: ezarpen prozesuaren indar-guneak eta hobetzeko arloak aztertuko dira planean parte-hartzen duten udal teknikari, politikari eta gizarte eragileei galdetuz. Hurrengo esparruetan erreparatuko da, besteak beste: inplikazioa, lanerako tresnak eta koordinazioa, komunikazioa, partaidetza-prozesuak, etab.

- Eraginaren ebaluazioa: berdintasun politikek dituzten eraginak aztertuko dira eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunean eman diren aurrerapausoak neurtuko dira.

Bestalde, prozesuaren ebaluaketa eta inpaktua aurrera eramateko, elkarrizketak, galdetegiak etab. erabili ahal izango dira.

Baliabideak

Udal aurrekontuari dagokionez, hurrengo 4 urtetarako, berdintasunerako II. plana burutzeko aurrekontua zehaztuko da eta 2021rako 6.000 €koa izatea espero da. Plan hau indarrean dagoen gainerako urteetarako, aurrekontua hobetu (posible den heinean) egingo da, eta aurreko urteko azken hilabetetan ezarriko da.